

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Burgeluko udalerriko administrazio batzarren finantzaketa arautzeko ordenantzari**

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 19an, hasierako onespena eman zion Burgeluko udalerriko administrazio batzarren finantzaketa arautzen duen ordenantza orokorrari, eta erabakia jendaurrean jartzeko epean ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu haren aurka; beraz, erabaki hori behin betiko onetsita geratzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko erabakia argitaratzen da.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat jotzen da, honela idatzita:

#### **“Burgeluko udal barrutiko administrazio batzarren finantzaketa arautzeko ordenantza**

##### Zioen azalpena

Burgeluko udalerriak sei administrazio batzar biltzen ditu, udalerria osatzen duten beste hainbeste herrigune kudeatzen dituztenak.

Orain arte, administrazio batzarrek dirulaguntza edo diru xedapenak jaso izan dituzte Burgeluko Udalaren eskutik. Dirulaguntza edo diru xedapen horiek denboran zehar hartutako udal hitzarmen edo erabakietan oinarritzen ziren, eta beren gastu arruntak partzialki finantzatzeko baliabide iturri izan dira.

Dirulaguntza edo diru ekarpenei buruzko legeriaren bilakaerak eta administrazio batzarrek ematen dituzten zerbitzu eta jardueren bilakaerak eskatzen du azken urteetan erabili denaz bestelako finantzaketa eredu bat ezartzea.

Horrela, egokiagotzat jotzen da gastu arruntetarako dirulaguntza finalistak emateko sistema uztea eta beste sistema bat hartzea, non administrazio batzarrek udal aurrekontuan parte hartuko baitute transferentzia baten bidez, eta transferentzia hori beren ogasunetan finantza baliabide errepikaria izatea haien zati. Sistema hori banaketa irizpide objektibo batzuetan oinarrituta ezarri behar da. Irizpide horiek, alde batetik, gutxieneko finantzaketa bermatuko diote administrazio batzar bakoitzari, eta, bestetik, bere idiosinkrasiara egokituko da, hau da, kontzeju instalazioen ezaugarrietara, ematen diren zerbitzuetara eta horietako bakoitzean garatzen diren jardueretara.

Horretarako, banatu beharreko funtsa zati finko batean (berdina administrazio batzar guztietarako) eta zati aldakor batean (biztanle kopuruaren arabera) banatzen da.

##### Oinarri arautzaileak

#### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea da Burgeluko udalerriko administrazio batzarrak finantzatzeko araubide juridiko orokorra arautzea, udal aurrekontuaren kontura.

**2. artikulua. Finantzaketaren onuradun diren administrazio batzarrek**

Burgeluko Udalaren aurrekontuaren kargura finantzaketa lortzeko eskubidea aitortzen zaie udalerriko administrazio batzar guztiei, hau da:

- Añuako Administrazio Batzarra.
- Arbuluko Administrazio Batzarra.
- Argomaizko Administrazio Batzarra.
- Burgeluko Administrazio Batzarra.
- Gazetako Administrazio Batzarra.
- Ixonako Administrazio Batzarra.

**3. artikulua. Ekarpenen izaera**

Ordenantza hau aplikatuz Burgeluko udalerriko administrazio batzarrek jasotzen dituzten diru zenbatekoak beren ogasunen ohiko diru sarrerak dira, libreki xedatzekoak eta inongo baldintzarik gabekoak, haiek arautzen dituen araudiaren arabera dagozkien zerbitzuak mantentzeko eta emateko, bai eta kontzejuaren beraren antolaketa eta kudeaketa gastu arruntak finantzatzeko ere.

**4. artikulua. Jasanarazi beharreko orotarako zenbatekoa**

Ondorengo artikuluetan jasotzen diren irizpideen arabera jasanaraztekoa den orotarako zenbatekoa izango da udalaren aurrekontuan urtero izendatzen dena, dela hasieran, dela 943.434.000 "Udalerriko administrazio batzarrei transferentziak" 943.434.000 aurrekontu partidan legez onartzen diren aurrekontu aldaketan ondoriozkoa.

**5. artikulua. Ekarpinak**

Ekarpinak honela banatuko dira:

- Tarte finkoa.

Urtero aurrekontuko 943.434.000 partidan (udalerriko administrazio batzarrei transferentziak), horretarako jartzen den kredituaren gainean, bakoitzari zazpiehun euroko (700,00 euro) zenbateko finko bat esleituko zaio.

- Tarte aldagarria.

Behin 943.434.000 aurrekontu partidatik tarte finkoari dagozkion kopuruak kendu ondoren, gainerako zenbatekoa udalerrian erroldatutako pertsonen guztizko kopuruarekin zatituko da, eta erakunde bakoitzari bere kontzeju mugartean erroldatutakoei dagokien kopuru proportzionala egokituko zaio.

Ondorio horietarako, transferentziari dagokion ekitaldi ekonomikoko urtarrilaren 1a izango da erreferentzia data udalerrian eta hura osatzen duten administrazio batzarretako bakoitzean erroldatutako pertsonen kopurua zehazteko.

**6. artikulua. Udalaren aurrekontuko partaidetzen zehaztapena eta ordainketa**

Udalak ekarpen bakarrean egingo ditu transferentziak, ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, baldin eta administrazio batzarrek bete badituzte ordenantza honen 7. artikuluan adierazitako betebeharrak.

**7. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Administrazio batzarrek betebeharrak hauek izango dituzte:

Lehenengoa: Toki erakundearen gobernu organoak legez eratuta egon behar dute.

Bigarrena: Administrazio batzar bakoitzeko errejidore-presidenteak, edo horrek izendatutako pertsonak, Burgeluko Udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko ditu aurreko aurrekontu ekitaldiari dagozkion kontzejuaren urteko kontuak (gastuak, sarrerak eta kutxako izakinak) hurrengo urteko urriaren 31 baino lehen, edo arauz ezarritako epean. Kontuak Arabako Foru Aldundiak eskatzen duen formatuan onartuta egon beharko dira, eta Aldundiaren erregistroko sarrera eduki beharko dute.

Administrazio batzarrak aurreko paragrafoan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duen bitartean, udalak ez dio ordainduko bere partaidetzari dagokion zenbatekoa.

Hirugarrena: Erakunde onuradunek Udalak egin ditzakeen finantza egiaztatze eta kontrol jarduerak onartu beharko dituzte.

#### Azken xedapena

Udalbatzak ordenantza orokor hau behin betiko onetsi ondoren, ordenantza ALHAOn argitaratuko da oso-osorik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 2020an jarriko da indarrean.”

Burgelu, 2020ko otsailaren 28a

*Alkatea*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*